

Aretxagazeta

GAZTE

GAZTEEN NAHIAK EZIN BETE

LEKUA



ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
San Pedroei
errepasoa /08

AISIALDIA
140 ume
Udaleku Irekietan /09

LEINTZ GATZAGA
Toki Ederrek batzar
orokorra /10

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 5
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 6
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarte 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Instituta 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxo ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Saretxo 943 71 26 56
Taxi geltokia 943 79 22 33
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdialk 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: AOZARATZA
Domekan 13:00etan.

MENDIOLA
Ez da mezarik egongo.

GELLAO/GALARTZA/IZURIETA
Ez da mezarik egongo.

OHARRAK

ERRETIRATUEK BIDAIA
Basotxo erretiratuak elkarrekin bidaia antolatu du uztailaren 9rako. Hendaia, Hondarribia, Oiartzun eta Donostia bisitatuko dituzte. Interesatuak Basotxotik pasa daitezke txartelak hartuz, 10:00etatik 12:30era. Prezioa: 16 euro.

ON BITORIANORI OMENALDIA AUZOTARREK
Auzotarrek omenaldia egingo diote Bitoriano Aranburu abadeari domekan, hilaren 6an. Aozaratzan izango dute meza, 13:00etan, eta gero bazkaria Matikua jatetxean.

KZGUNEAN UDAKO ORDUTEGIA
Uztailean KZGuneak udako ordutegia du, 08:00etatik 16:00etara, hain zuzen ere. Abuztuan, ostera, itxita egongo da, eta irailean leian zabalduko dituzte berriro ateak.

LIBURUTEGIAN UDAKO ORDUTEGIA
Uztailaren 1a ezkerko udako ordutegia du liburutegiak: astelehenean 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara zabalduko dute eta gainerako egunetan, goizez bakarrik. Uztailean 31tik abuztuaren 24ra bitartean, bestalde, itxita egongo da. Uztailean 14tik aurrera oporretan irakurtzeko liburuak hartu ahal izango dira; lau, gehienez.

LORAMENDIRENAGENDA

DEBAGUNE EGUNA
Debagune Eguna ospatuko dute ibarreko euskara elkarteek hilaren 12an Oñatin. Egun horretarako Koadrilen Arteko Lehiaketa antolatu dute: sei-zortzi lagunek osatutako taldeek hartuko dute parte, eta herri kirolak egin eta euskara probak gaudituz beharko dituzte. Horrez gain, bazkaria egongo da. Informazio gehiago gura duenak deitu Loramendira.

ORAINDELA 68 URTE ARETXABALETAN

Harria jarri zioten Bedoña auzoan 'Loramendi'-ri

Joakin Arana *Loramendi* olerkariari hil berriant egin zioten lehenengo omenaldia, 1935eko uztailaren 2an. Aretxabaletarren eta arrasatearren artean ordaindutako harria jarri zioten Bedoñan, bere auzoan. Aretxabaleto *Loramendi* kalean dagoena, hain zuzen, Bedoñakoaren kopia da.



BERTAKO BERRAK/ Juan Martin Elexpuru

"Malkarra"

Leku oso aldapsua.
—*Idurixoko aitz ingurua, Idurixotik bera dagon zera, malkarra.*
—*Elgetara malkarrak eta dare, puxkat.*



ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Mikel Uribechebarria
1ean. Berandu bada ere, zorionak, koadrilako guztien partetik.



ESKORRIATZA
Patxi Nevado
3an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ARETXABALETA
Julen Sopo
7an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako, Almengo lagunaren partetik.



ARETXABALETA
Ibon Agirre
6an. Zorionak eta muxu handi bat, ARETXAGAZETA lagunaren partetik.



ARETXABALETA
Inma Miguel
7an. Ez gara kontatzen hasiko zenbat, ez? Zorionak! Kafe orduko lagunak.



ARETXABALETA
Maria Zubillaga
8an, 1 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Xabier, Leire eta gurasoak.



ARETXABALETA
Eñaut Oskoz
10ean, 1 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA



Errebelatu guztiak 24 ordutan

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak

Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

Lie

LURRINDEGIA OPARI DENDA

Mitarte, 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

Aretxabaleto Industrialdea F-0-4 20550 ARETXABALETA
Tfnoa.: 943 791844 / Faxa: 943 792941 info@eguzkigraf.com

EGUZKIGRAF
inprimategia

UDAKO ORDUTEGIA:
Uztailean, goizeko 7etatik ordu 2arte Abuztuaren 11tik 25ra, ITXITA

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

ATREBENTZIAEZPADA/ Rebajetara fango zara? Ohiturarik bai sasoi honetan erosketak egitteko?




PILI SEIJO
Langillie

Bai, aurten fango naz rebajetara, baiñe ez dauket ohiturarik. Izen be, nik neuk gauzak biher dittudanien erosten dittut. Rebajetan atzera geratutako erropak saltzen dittue.



JORGE BENGOA
Langillie

Ez, neu ez naz fango. Jeneralien, gaiñera, ama faten da erosketak egitten. Reba-jei ez dutziet aparteko inportantziarik emuten. Erropie biher danien eros-ten dot.




ROSA SEIJO
Langillie

Bai. Izen be, oso gustora nebillen sandaliak apurtu egin jat, eta beste batzuk erosten fango naz rebajetara. Dana dala, ez dauket rebajetan erosketak egitteko ohitura haundirik.



AITOR LAGUNILLA
Langillie

Ez, ez naz rebajetara fango. Sekula ez dot ohiturarik euki rebajetan erropak erosteko, eta oin be ez naz fango. Biherrezko gauzak biher dienien erostian alde-kuie naz.



JABIER MAR
Langillie

Bai, aprobetxetan dittut rebajak, eta fateko asmue dauket. Ez die aukera pare-gabiek topetan, baiñe gauzak zertxobait merkiago egoten diela uste dot, eta horregaitik faten naz.



PAULINA ÁLVAREZ
Langillie

Ez, normalien ez naz rebajetara faten. Oin, udako egualdixekin, gaiñera, ez dogu erropa askorik ibiltten. Lehenago, nere ustez, jente gehixago faten zan rebajetara.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ZAKARRONTZIA NON? Herriko gozotegi baten parean ateratako argazkia duzue goikoa. Umeei beti erakusten diegu zakarrak zakarrontzira bota behar direla, baina, horretarako lehenengo eta behin zakarrontziak jarri behar. Umeez gozokiak jaten dituzten lekuan zakarrontzi bat egongo balitz pentsatu gura nuke ez litza-tekeela kale guztia zikin-zikin egongo. /A.L.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Gazte-lekua, nahi baina ezin

Apirilean zabaldu zuten gazte-lekua. Ez du espero zen arrakastarik izan, gazteek nahiak ez dituelako bete.

ASTEAN BEHIN /05

Eskoziara bidaia

Parrokia inguruan dabilzan lagunek aurtengo abuztuan Eskozia ezagutzera joango dira.

KIROLAK /06

UDA, egoera larrian

Hamaika zailtasuni egin beharko dizkie aurre UDA-ko Zuzendaritzak hurrengo denboraldian.

ASTEKODATUA

186

UME DABILTZA AURTEN UDALEKU IREKIETAN


Martitzenean, hilaren leian, hasi ziren Udaleku Irekiak herrian. Aurten 186 ume dabilta, iaz baino gutxiago; izan ere, 2002ko Udaleku Irekietan ia 200 umek eman zuten izena.

BESTEKEKESANA

“ Abiatzen hasi eta habiatu, alajaina. Horixe da, adibidez, ezker abertzaleak jeltzaleei egotzen diena: balizko marko berrirantz abiatzeko aski kemenik ez eta autonomismoaren habia erosoan etsitzeko aukera egin dutela, beste behin. Abiatzearen eta habiatzearen arteko dilematik hautsi zen, ikuspegi honen arabera, Lizarragarazi prozesua. Zenbateraino arriskatu behar zen esperimantu politiko ziurgabeetan, eta zenbateraino baliatu behar ziren martxan zeuden botere-guneak? “Ezker abertzalea abiazale eta jeltzaleak habiazale”, esan liteke. Baina inoiz ez da guztiz hala izaten, izan ere, abiatze-habiatze dilema etengabea antzaldatzen da gure baitan. Ia beti bietatik daukagu denok.

JON SARASUA
‘Argia’/03-06-29

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



Udak dakarrena

U da garaia da bereziki tenperaturak goratzeaz gain drogen kontsumo tasa igotzen duena. Onak ala txarrak diren horrela boteprontoan esatea ez da erraza, izan ere, gai honen inguruan informazio gutxiegi eta debeku gehiegi baitago aukeran. Pentsatzen jarririk, benetan txarra denak tentatzen al gaitu ba? Badirudi ezetz. Azken finean botikan erosten ditugun sendagai asko drogak direla onartu ezker, eta legezkoak direla jakinda, egoera berdintsu batera hel gintezke (gainerako) droga edo sustantziekin. Informazioa da hemen klabea. Informazioa. Aspirina kaxa bat lasai asko erosten dugunean, holako eta halako pertsonendako ez dela komeni, beste zer batekin ez nahastea edota, kontraindikaziorik ba ote duen, garbi irakur genezake beste hamaika argibiderekin batera sendagaiak berak dakarren papertxoan. Eta besterik gabe saltaileari

galdetuta. Noiznahi eta nonahi bertatik bertara dugun arren oraindik orain, drogak, tabu izaten jarraitzen du gure artean. Aspalditxoan ahotan gehiagotan hartu bada ere ahal den neurrian saihesten jarraitzen da. Bestelako gaiei buruz hitz egiten deneko erosotasuna falta da. Okerrena zera da; legez kanpo eta isilean maneiatzen den edozerk, gutxi batzuen diru iturri den bitartean, hamarretik bederatzitik alde egiten du, kalitatean galera ekarriaz. Orduantze esan genezake, benetan, droga txarra dela. Egoera onean ez legokeen janari edo edariak kalte egingo ligukeen bezala, dena delako drogak ere kalte egingo liguke eta. Itxura guztien arabera gainera, eta ez da atzoko kontua bakarrik, drogen auzi honetan, gertaera ilun asko dago. Informazioa eta kontrol minimo bat oinarri oinarritzakoak dira; labela edo... Hori, baina, agintarien esku dago.

“Noiznahi eta nonahi bertatik bertara dugun arren, oraindik orain, drogak, tabu izaten jarraitzen du gure artean”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki
ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster
MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94
ISSN
1134-2609
TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:





M. J. Aretxaga

Gaztiak eta erretirauek

Danetik dakart aste hontan, gaztien kontuek eta baitte jubilautekuenak be. Kirol kontuekin hasiko naz. Izen be, Mondraueko San Juan jaixetan Aitor Alcaide xakelarixe edarto ibili zan, bigarren egin euen Xake bixkorreko txapelketan. Edarto ibilliko dan beste gaztetxo bat **Beñat Etxabe** da. Canal+ telebista katiek antolaketan dauen futbol 7 torneora doie aste bukaeran, Madrillera hain zuzen be. Horreikin batera Lorea Leanizbarrutia aretxabaletarraren semea ere joango ei da. Ondo ibilli eta notizia onak ekarri!

Gaztiak kirolien eta erretirauek beste lan batzuetan. Basotxo Erretirauren Elkartiek presidente barrixe dauko, **Emiliano Altube**. Oin arte presidente ordie izen da, hortaz badaki zelako ardurak izengo dittuen. Laster jubilauko dan bat aittetu gureko nauke bukaketako, **Felix Madinabeitia, Katxo**, hain zuzen be. Abuztua inguruen jubilatuko ete dan zurrumurrue sortu da, eta halaxe izango da. Zebat gizon eta mutikote itxi ete dittu **Katxok** kazkamotz urte honeitan guztixetan... Batek baino gehixauk botako dau faltan. Basotxon zabaldu dauien pelukerixara ikesi biherko daue oin bidie. Hori bai bertako bazkide izen biher.

GAZTERIA/ Apirilean zabaldu zuten, baina gazte gutxi joaten dira gazte-lekura, eta guztiak neska

Udalak gazteendako jarritako gazte-lekuak ez ditu ase herriko gazteen nahiak

MIRARI ALTUBE

Poxpolin Aisialdi Taldeak zabaldu zuen apirilean Prebentzio Sailaren eta Kultura Sailaren ardurapean. 12 eta 16 urte arteko gazteendako da aste bukaeretan zabaltzen duten lokala, baina ez du arrakasta handirik izan. Uztailean oraindik zabalik egongo da.

Gazteek lokala gura zuten, eta Udalak lokala eman zien. Gaztelekuak, hala ere, ez ditu bete gazte horien nahiak.

ARAUAK BETE BEHAR

Apirilean zabaldu zuen Poxpolin Aisialdi Taldeak gazte-lekua, eta Nerea Elortza dabil begirale lanean. 12 eta 16 urte arteko gazteendako den arren, momentu honetan 14-15 urteko neska koadrila bi baino ez dira joaten: "Hasieran mutilak ere etortzen ziren, baina ez ziren gazte-lekuko arauak errespetatzeko gauza, eta alde egin zuten", dio Nereak.

Gazte-lekuari astero egiten diote jarraipena Prebentzio eta Kultura sailek, eta hainbat arau ditu, ez erretzea eta alkoholik ez edatea, besteak beste. Gazteen gurasoei ere argi utzi zieten hori batzar baten.

ALDIZKARIAK ETA TELEBISTA

Nerea Elortzaren esanetan, zapa-tuetan eta domeketan joaten dira gazteak, egubakoitzetan ere zabalik dagoen arren. Aldizkariak eta



NEREA ELORTZA

Beldurrezko filmak ikusten dituzte gazte-lekuan neska koadrilek.

telebista dauzkate, eta horiei begira pasatzen dituzte orduak. "Hasieratik esan nien nik ez nuela ezer antolatuko, eurek proposatu beharko zutela zer egin. Telebista eta DVDa dauzkagunetik filmak ikusten ditugu, beldurrezkoak",

dio Nereak. Hasieran, mutilak oraindik joaten zirenean, kontzertua izan zuten: "Mutil batzuek musika taldea osatu dute, eta kontzertua eskaini ziguten. Arrasateko lagunak ere ekarri zituzten, eta jende dezente batu ginen orduan".

Uztailean zabalik egongo da gazte-lekua, eta gero balorazioa egingo dute aurrera jarraitu edo ez erabakitzeko. Gazteek lokala gura zuten, eta Udalak eman zien, baina badirudi gazte-lekuak ez tituela bete euren nahiak.

LABUR

Euskal Presoak Euskal Herrira Astea antolatu du EPEH Aretxabaletako plataformak

Uztailearen 15etik 19ra bitartean Euskal Presoak Euskal Herrira Astea egingo dute herrian. Euskal Presoak Euskal Herrira Aretxabaletako plataformak antolatu du, eta era guztietako ekin-tzak egongo dira: film emanaldia, hitzaldia, mobilizazioak, eta

abar. Uztailearen 18an, Julen Cobos aretxabaletarraren Bat Gehio taldea etorriko da kontzertua ematera. Eta 19an, zapa-tuan, mendi ibilaldia eta herri bazkaria egingo dituzte. Bazkaria joateko txartelak herriko hainbat tabernatan daude salgai.

Portasolgo jairik ez da egongo, seguru asko

Gogoia bai, baina antolatzailerik ez dago eta aurten ere seguru asko ez dute Portasolgo jairik antolatuko. Jai batzordean aipatu zuten gaia, baina antolatzeko inor gertu egon ezin egin. Iaz arte urte askoan ospatu izan dira Portasolgo jaiak uztailean.

Gobernu batzordea osatu guran dabilza

Udalbatza eratu zutenetik, ekainaren 14tik, hilabete dute Gobernu batzordea osatzeko, eta horretantxe dabilza alderdiak. Hain zuzen ere, EAJ-EA koalizioak hainbat batzar egin ditu Ezker Batuarekin, Aralarrekin eta Aretxa plataformarekin.



KIXKUR
ILEAPAINDEGIA

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABAETA

Eta...
**SOLARIUM
BERTIKALA**

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABAETA • Tel.: 943 79 88 95

BIDAIA / Oraindik sei bat lagunendako lekua daukate autobusean

Eskozia aldera joango dira aurten parrokiako bidaiariak

MIRARI ALTUBE

Urtero antolatzen dute parrokiak inguruan dabilen lagunek abuzturako bidaia, eta aurten Eskozia aldera joango dira. Abuztuaren 1etik 13ra egingo dute bidaia, autobusez, eta oraindik sei bat lagunendako lekua daukate. Hortaz, animatu eta izena eman.

Orain dela urte batzuk hasi zen Jose Luis Arratibel Aretxabale-tako parrokiako sakristaua abuzturako bidaiak antolatzen, eta geroztik urtero joaten da Europa aldera herriko taldetxo bat. Aurten Eskozia ezagutuko dute.

ESKOZIA ETA INGURUAK

Abuztuaren 1ean irtengo dira Aretxabaleatik eta 13an itzuliko dira, Eskozia ezagutu ostean. Autobusean egingo dute bidaia: "Beti egin dugu autobusean, eta aurten ere halaxe izango da. Frantziatik Britainia Handira pasatzeko ferrya hartuko dugu", dio Jose Luisek. Londresen egun bat egin, eta Eskozia aldera joko dute: Edinburgo, Aberdeen, Inverness eta Glasgow, guztiak bisitatuko dituzte. "Ez dakit zelako eguraldia topatuko dugun aurten; behar bada freskoa, baina ez digu ardurara. Orain arte bero pasatu izan dugu; hortaz, aldaketa ondo hartuko dugula uste dut", dio Jose Luisek.

Dagoeneko 42 lagunek eman dute izena, baina oraindik sei bat lagunendako lekua daukate. Eta



Poliki-poliki Europa osoa ezagutzen dabil Aretxabale-tako taldetxoa.

izena eman eta bidaia ordaintzeko azken eguna uztailearen 15a izango da.

EUROPA EZAGUTZEN

Ez da parrokiako lagunek antolatu duten lehenengo bidaia. Iaz Italia aldean ibili ziren, eta Euro-

pan barrena hainbat bidaia egin dituzte: "Poliki-poliki Europa osoa ezagutu behar dugu", dio Jose Luisek. Erretiratuak, langileak, ikasleak... Adin guztietako jendea elkartu izan da, gehienak aretxabalearrak, eta giro bikaina izaten dute beti.

TXUTXUMUTXUA



Umeek eta gurasoek bete egin zuten plaza

Martitzenean hasi zituzten aurtengo Udaleku Irekiak. 10:00etan elkartu ziren umeak, gurasoak eta begiraleak plazan, eta adinaren arabera taldeak egin zituzten. Hainbat gurasori kosta egin zitzaion umei agur esatea, eta malkoei ezin eutsi geratu zen ume bat baino gehiago. Izan ere, lehenengo eguna zuten guztiek, baina hemendik aurrera eta uztailearen 22a bitartean barre algarak, jolasak eta ondo pasatzeko gogoia izango dira nagusi Aretxabale-tako kaleetan. /M. A.

LABUR

Eguazten arratsaldean aurkitu zuten Institutu inguruan domekan desagertutako emakumea

Eguazten arratsaldean, bostak inguruan, aurkitu zuten Bittori Ribera domeka arratsaldeaz geroztik desagertuta zegoen 86 urteko emakumea. Eskoriatza eta Aretxabalea artean, Insti-

tututik gertu dagoen bide batean topatu zuten hilda Bittori. Hiru egunetan zehar, haren bila ibili ziren geratu barrik, bai ertzaintza eta bai herritarrak Aretxabalean eta inguruetan.

ANA'S
jantzi denda

Iparragirre 4.
Aretxabalea

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

J.J. IRURE
TURBENTZA

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

IZOTZ
Taberna

Mitarte, 16
Tel.: 79 73 65
ARETXABALETA

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
Aretxabalea
Tel. 943 79 94 15

Lasai

Mirian Manteca
masajista

Lezama Zentru Komertziala
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
 - Kraneala
 - Estrukturala
 - Funtzionala
- Lotura muskularrak

Expres



Santakurtz, 16
943 79 23 43



ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

FUTBOLA

Zailtasunekin egingo dio aurre UDA elkarteak hurrengo denboraldiari

Zuzendaritza batzordeak gaur, egubakoitza, egin du batzar orokorra bazkideekin

AMAGOIA LASAGABASTER

UDA Futbol Elkarteak egoera jasangaitza bizi du. Inork ez du Zuzendaritza batzordean sartu gura, eta gaur egun daudenak aspertuta daude. Hala, urtero moduan, hamaika zailtasunekin egin beharko diote aurre denboraldiari. Besteak beste, entrenatzaileak falta dira.

UDAKo Zuzendaritza batzordeak urte batetik bestera egoera okertuz doala uste du. Izan ere, azken futbol denboraldietan batzordeko kideak berri guran dabilta, baina ez dute horretarako boluntariorik aurkitzen. Inork ez du gura herriko futbol elkartearen alde lanik egin, eta orain arte jardanean ibili direnak aspertu dira dagoeneko. Gainera, gero eta zailtasun handiagoi egin behar die aurre.

HAMAR TALDE

UDA elkarteak hamar talde ditu gaur egun. Horietatik garrantzitsuenak bi dira: preferente mailakoa eta azken denboraldian mailaz igo den erregionaleko lehenengo mailakoa. Horiendako



Batzordekideek elkarteak bizi duen egoera larriaren berri emian diete bazkideei.

dagoeneko aurkitu dituzte entrenatzaileak, baina gainerako sei taldeetan, aurten ere, gurasoek egin beharko dituzte entrenatzaile lanak, eta Zuzendaritza batzordeak dagoeneko ez daki zelan aurre egin arazo horri.

BATZAR OROKORRA

Zuzendaritza batzordeak gaur egin duen batzarrean urteko balantzea egin du. Horrez gain, batzordekideek esan dute urte amaieran egoera aldatzen ez bada batzordea utzi egingo dutela.

TXUTXUMUTXUA



Herriko karatekak Araban izan ziren

Ekainaren 27an, 28an eta 29an, Aretxabaletako lau karateka Espejon (Araban) izan ziren entrenamendu saio bereziak egiten. Besteak beste, aire zabalean eta errekan sartuta egin zituzten ariketak. Aretxabaletako karate elkarteak kideez gainera, baina, Arrasateko eta Bergarako karatekek ere hartu zuten parte entrenamenduetan. /A.L.

TRIALSINA

Markel eta Nagore Uriartek maila ona erakutsi dute Open Norte trialsin txapelketan

Joan den domekan, ekainaren 29an, amaitu zuten Markel eta Nagore Uriartek Open Norte trialsin txapelketa, Gasteizen. Oraingorain ere maila ona erakutsi dute Larrinoko anai-arrebek, eta, hala, sailkapenean aurreneko postuetan gelditu dira: hain zuzen ere, Markelek gaztetxoan mailan jokatu du eta bigarren postuan gelditu da, Jon Areitioeren ostean; Nagore, bestalde, hirugarren gelditu da emakumezkoen mailan. Orain oporrak hartuko dituzte kirolari gazte biek, baina, hala ere, entrenamendu saioak egiten segituko dute. Izan ere, irailaren 21ean Euskadiko Trialsin Txapelketan hartuko dute parte Markel eta Nagore Uriartek.

Publizitate arloan lan egiten duen Gipuzkoako enpresa berri batek honako lanpostu hauek bete behar ditu:

1.- Komertzial sarearen koordinatzaile/arduraduna. Erref.: S.Ard.

Bilatzen dugu:

Giza harremanetarako gaitasuna duen pertsona dinamikoa.
Lan taldeen gidaritzan edo publizitate salmentan eskarmentua duena.
Helburuekin lan egiten ohitua dagoen pertsona.

Eskaintzen dugu:

Euskalgintzako proiektu berri batean parte hartzeko aukera.
Euskal Herri osoko komertzial sare baten gidaritzan.
Lan kontratua eta gizarte segurantzako kotizazioa.
Oso soldata interesgarria: finkoa+komisioak+sariak

2.- Publizitatea saltzeko komertzialak Gipuzkoan. Erref.: Kom.

Bilatzen dugu:

Giza harremanetarako gaitasuna duen langilea.
Pertsona dinamikoa.
Mundu komertzialerako bokazioa duen pertsona.

Eskaintzen dugu:

Euskalgintzako proiektu berri batean parte hartzeko aukera.
Lan kontratua eta gizarte segurantzako kotizazioa.
Oso soldata interesgarria: finkoa+komisioak+sariak.
Enpresan promozionatzeko benetako aukerak.

Bietan ezinbestekoa:

Euskaraz ondo hitz egitea eta idaztea.
Gidabaimena eta autoa izatea.

Interesatuok bidali lehenbailehen zuen curriculum, argazkiarekin, honako helbide honetara:




IRAGARRI S.L.

Gudarien etorbidea, 29 • 20140 ANDOAIN- GIPUZKOA


Gutun-azalean eta curriculumean lanpostuaren erreferentzia adierazi.

GRUPO **RKUZ** 1950-2003

Zure
etxea da




Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA




Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko uztailaren 4a / 131. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Kalitatezko jai egitarauak herritarren erantzun ezin hobea jaso du

AINTZANE GARDOKI

“Jaietako egitaraua prestatu genuenean, egitarau oparoaz gain, herritar guztiei zuzendutako egitarau orekatua izan genuen helburu. Eta jaiak izan duten erantzuna ikusita, lortu egin dugula esan genezake. Ni oso pozik nago. Egin ditugun ekintza eta ekitaldiak kalitatezkoak izan dira, eta gehienak jendez gainezka egon dira: pailazoak, antzerkiak, Euskal Jaiak... Umeen eta nagusien danborradek ere ikuskizun polita eskaini zuten. Ezin gehiago eskatu San Pedroei”, esan digu kultura teknikari Arantxa Untzuetak.

“Herritar guztiendako zuzendutako egitarau orekatua izan genuen helburu”

“Umeen eta nagusien danborradek ere ikuskizun polita eskaini zuten”



4 eta 14 urte arteko 140 umek hartu zuten parte danborradan.



Herrian hain ezagunak diren pailazoek umeen algarak eragin zituzten.



Etetik kanpo ordu asko emateko aitzakia ugari izan dituzte herriko gazteek.



Sagardoa eta taloa izan ziren nagusi martitzenean plaza inguruan.



Zeramista gazteak ontziak zelan egiten diren erakutsi zuen plazan.



Kirolari bizkaitarrek ikuskizun ederra eskaini zuten.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

UDALETXEAN UDAKO ORDUTEGIA

San Pedro jaiak direla-eta itxita egon diren udaletxea eta beste zerbitzu publiko batzuk ireki dituzte atek. Gogoratu udaletxeko zerbitzu gehienek udako ordutegia dutela iraila bukaera bitartean. Hala, herritarrek 10:00etatik 13:30ak arte izango dute udaletxera joateko aukera. Eguen arratsaldetako zerbitzua ez da egongo udan. Bestetik, liburutegiak eta kiroldegiak ohiko ordutegia izaten jarraituko dute. Liburutegiak uztailaren 24an itxiko ditu atek.

AXTROKIRENAGENDA

ESKERRAK EMANEZ

San Juan bezperan elkarteak antolatu zituen ekitaldian parte hartu zuten herritarrei, eta bereziki Matxaini, eskerrak eman gura dizkie Euskara Elkarteak.

TXUTXUMUTXUA



Herritarrek agur egin zioten udari

San Juan bezperako gauak egiten dio ongietorria udako solstizioari. Eskoriatzar ugari hurreratu ziren, urteko gau motzean, Herriko Plazara, udari agur egin eta izpiritu txarrak uxatzeko. Tartean, Garzón epaileak hain modan jarri duen 18-98 artikulua ere erre zuten herritarrek. Matxain tiratzaileak izan zuten San Juan Sua pizteko ohorea. Aurreko egunetako beroari euri zaparradak txanda hartu zion arren, herritarrek suak indarra galdu eta makala altxatu arte eutsi zioten.

LABUR

Eskoriatzako Kirol Elkarteak amaitu berri den denboraldiko balantze positiboa egin du

Ez dira aurrez jarritako helburu guztiak bete, baina, hala ere, Eskoriatzako Kirol Elkarteak zuzendari Manolo Muñozek esan du amaitu berri duten denboraldia ona izan dela. Manoloren esanetan, areto futboleant hartu dute pena handiena; izan ere, Euskal Ligako taldea mailaz jaitsi da, eta datorren urtean Arabako Ohorezko Ligan jokatu du. Eskoriatzako elkarteak bigarren areto futbol taldeari dagokionez, denboraldi osoan sailkapeneko aurreneko postuen ibili eta gero laugarren gelditu da Liga Probintzialeko lehenengo mailan. Manoloren esanetan, datorren denboraldiko helburua da talde bi horiek mailaz igotzea. Bestalde, saskibaloian, emakumezko hiru taldeak nahiko ondo ibili dira: nagusiak seigarren gelditu dira, gazteak bigarren mailatik Liga Probintzialeko lehenengo mailara igo dira eta, azkenik, kadeteek, partidu gutxi irabazi dituzten arren, beharrezko esperientzia hartu dute Ligan.

Datozen 15 egunetan herriko 145 ume ibiliko dira Udaleku Irekietan jolasean

Astelehenean, uztailaren 7an, hasi eta hilaren 24a bitartean herriko 145 ume hartuko dute parte aurtengo udalekuetan. 3 eta 11 urte arteko umeak zortzi taldetan egongo dira banatuta: Haur Hezkuntzako mailatan dabilen hiru talde egongo dira eta beste bost talde 6 eta 11 urte arteko umeek osatuko dituzte. Udalekuek iraungo duten ia hiru asteetan 18 begiraleren laguntza izango dute herriko txikiak. Goizetan 10:00etan elkartuko dira Gorosarri plazan, eta 13:00ak arte izango dute makinatxo bat zeregin. Arratsaldean, berriz, 15:00etatik 17:00etara ibiliko dira elkarrekin. Ekintza ugari dituzte prestatuta datozen egunetarako begiraleek: egubakoitzetan, besteak beste, mendira irteerak egingo dituztela jakinarazi digute; bestetik, 13 eta 16 urte arteko gaztetxo gutxi eman dute Gaztekantoin parte hartzeko izena. Hortaz, horiek Arrasateko Txatxilipurdiko gaztetxoekin batera pasatuko dituzte datozen asteak.



Sariak eta izendapen berezia Arizmendirendako

Ikasturtea amaitu da, eta Arizmendi Ikastolaren kasuan pozik amaitu ere: batetik, DBHko ikasle talde bik Eibarko Armagintza Eskolak antolatutako Teknologia Proiektuen sari nagusi biak eskuratu dituzte; eta, bestetik, sortu berri den Arizmendi Ikastolako Batxilergoko lehen promozioiko ikasle guztiek emaitza bikainekin gainditu dute selektibitatea. Hori dela eta, epaimahaia zoriandu egin du Arizmendi. Argazkian Batxilergoko talde txo bat, berri pozgarria jakin eta gero.



EDURNE



Elektroterapia.

ESTETIKAN
ESPEZIALIZATUTAKO
ZENTRUA

Aranburuzabala 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIATZA



MIRENTXU TABERNA

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA HORTZ KLINIKA

Eduardo Gorosarri, 3-1. Esk.
Tel.: 943 71 47 36

NAIRA Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

Toki Eder elkarteko bazkideek urteko batzar orokorra egin dute

AINTZANE GARDOKI

Ekainaren 22an egin zuten batzar orokorra Toki Eder elkarteko bazkideek. Garro jauregiak urtarrilaren 11n su hartu eta horren ondorioz egin behar izan diren lanek eraginda, batzar orokorra ekainera atzeratu zuten. Batzordekide berri bi ditu elkarteak.

Ia 90 bazkide ditu Gatzagako Toki Eder elkarteak: "Elkartean ia 90 bazkide gara. Kopuru horren barruan herriko erretiratuak ere badaude, baina ez dute batzar orokorrera etortzeko obligaziorik", esan zigun Alberto Oñate elkarteko batzordekideak. Beste bazkide guztiek, aldiz, batzar orokorrera joateko obligazioa dute: "Etorri ezin duen bazkideak etorri ezin hori justifikatu egin behar izaten du. Aurten dozena bat lagunek adierazi digute ez zutela etortzerik izango", gaineratu du Oñatek.

Ordu erdi eskasean amaitu zuten batzarra. Hainbat puntu jorratu zituzten: aurreko batzarreko akta onartzea, urteko kontuak onartzea, altak eta bajak eta batzordekideak aldatzea, besteak



Dorleta Elkorobarrutiak jaso zituen batzordekide berriak aukeratzeko bazkideek emandako botoak.

beste. Hain zuzen ere, aurten ez da bazkide berririk egin eta batek elkarte utzi egin du: Alfonso Blacok, hain zuzen ere.

Diru kontuei dagokienez, suak eragindako kalteak direla-eta, laster altzari berriak jarriko dituztela jakinarazi zieten batzordekide-

ek bazkideei: "Elkarteak altzariak erosteko aurrekontuaren %15 aurreratu du. Baina gero, altzariak seguruak ordainduko dituenek,

elkarteak berriro jasoko du ditu hori", argitu zuen Oñatek. Bestetik, diru mugimendu guztiak edozein bazkideren eskura daudela gogoratu zien batutakoei.

Batzordekideek hileko kuota 9,02tik 10 eurora igotzea eta produktuen prezioak biribiltzea proposatu zuten. Aho batez onartu zituzten proposamen biok.

Toki Eder elkarteko batzordea bost lagunek osatzen dute: "Urte baten bi eta hurrengo urtean beste hiru batzordekide aldatzen ditugu. Aurten presidente eta sotolari berria aukeratu ditugu. Horretarako sei lagun proposatu genituen. Hala, presidente izateko boto gehien Jesus Urrutiak atera zituen eta sotolaria izateko, berriz, Txarantxak. Dorleta Elkorobarrutiaren eta Carlos Aranaren lekua hartuko dute bazkide bi horiek", esan zigun Oñatek. Bestalde, aurreantzean batzordekideak aukeratzeko sistema aldatu egin zuten: "Bazkideen zerrenda segituta sei edo zortzi bazkideren artean, botazio bitartez, urte baten bi eta hurrengo urtean hiru bazkide aukeratu beharko dira batzorde-rako. Sistema hori aukeratu dute bazkideek", esan zuen Oñatek.




Urteko gau motzema urak busti zuten

Zortzietan batu ziren herritar asko eta asko beheko plazan, Ignacio Beloki prestatzen zebilen sardina eta saiheski goxak dastatzeko. Bederatzi kilo sardina eta zortzi kilo saiheski erre zituen. Azken egunetako eguraldi onari eta bero ikaragarriari zirimiria hartu zion astelehen gauean txanda. Hala, aldeztu aurretik batutako egurra bustita, gasolioaren laguntza ezinbestekoa izan zuten sua pizteko. Herri-tarrek, dena dela, suaren eta kantuen laguntzaz izpiritu txarrak uxatu zituzten. /A.G.

LABUR

Datorren astean hasiko dira Udaleku Irekiak

Datorren astelehenean, uztailearen 7an, hasi eta 18ra arte, herriko umeek Udaleku Irekietan gura beste jolas egiteko aukera izango dute. Hala, 2 eta 10 urte arteko ume eta gaztetxoak talde bitan banatuko dituzte. Guztira herriko 15 ume ibiliko dira Oxel Azkarate eta Larraitz Mendizabal begiraleen esanetara. San Fermin festarekin ekingo diote udalekuei. Igerilekura irteerak, euskal jokoak eta beste zer egin ugari izango dituzte umeek datozen egunotan.



FAGOR

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Gastañadui auzoa 42
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa

Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001




Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21




SPORTLAND

KIROLA ZEURE ESKURA

Hartu arnasa
Gaurtik aurrera
merkealdia

SPORTLAND ARRASATE


Garihai Etorbidea, 2-6 - ARRASATE



ALTUNA
HARATEGIA
San Pedro 3
ESKORATZA



ANGELINES
AUTOZERBITZUA
Mitarte 16
ARETXABALETA



BEATRIZ
ARRANDEGIA
Otalora 19
ARETXABALETA



BENGOA
HARATEGIA
Durana 9
ARETXABALETA



CHARTER
JANARI DENDA
Aranburuzabala 3
ESKORATZA



ERREKABARREN
FRUTATEGIA
Errekabarren 14
ARETXABALETA



ETXABE
HARATEGIA
Durana 4
ARETXABALETA

OSAGAI ONENAK GURE KONTU

Prestatu, zuk prestatuko
duzu ondoen,
baina osagai onenak
gurean eskuratu
ahal izango dituzu:
zure herriko dendetan.



IMANOL
JANARI DENDA
Gorbea 8
ARETXABALETA




IOSU
HARATEGIA
Mitarte 1
ARETXABALETA



JON
HARATEGIA
Loramendi 1
ARETXABALETA



LEIBAR
ARRANDEGIA
Loramendi 1 / Mitarte 1
ARETXABALETA
Aranburuzabala 7
ESKORATZA



PAGALDAI
HARATEGIA
Gaztainadui 15
ESKORATZA



ZUBIA
HARATEGIA
Santa Ana 11
ESKORATZA